

ESTATALIZAZIOA:
Balizko lan erreforma
bati buruzko
ELAren proposamena



ESTATALIZAZIOA:

Balizko lan erreforma bati buruzko ELAren proposamena

3 Sarrera

5 Estatalizazioaren historia

5 Langileen Estatutuak kale egin zuen estatalizatzeko bide gisa

7 “Salbuespen autonomikoa”ren abagunea

9 Pluraltasun sindikalaren aurkako estatu-kolpea

9 Enpresa-negoziatorako joera

10 Soldatak jaisteko, estatalizatu

13 Lanbidearteko Akordioa, estatalizazioaren alternatiba

14 Rajoyren aldaera basatia

14 Estatalizazioa behin betirako ote da?

15 Estatalizazioak oinarritzko eskubide sindikalak urratzen ditu

16 Estatalizazioa amaiazteko unea

17 Kontu demokratikoa da

18 Autogobernu eta errespetu kontua da

18 Prekarietate edo duintasun kontua da

18 Negoziazio kolektiboa demokratizatzeko unea



Dokumentuak 40

2018ko iraila

www.mrafundazioa.eus

@mrafundazioa

ESTATALIZAZIOA:

Balizko lan erreforma bati buruzko ELAren proposamena

SARRERA

2018ko ekainaren 1ean Pedro Sanchez espainiar Gobernuburu izendatu zuten; ezusteko galanta izan zen. ELAK ez du uste aldaketa honek aldaketa handirik ekarriko duenik PPK hainbat arlotan ezartzen zituen politikiei dagokienez. Ez dugu esperantza handirik, ez herri, ez langile-klase garen aldetik.

Dena dela, aurreko gobernuak ezarritako legerik polemikoenetan azaleko aldaketak egiteko aukera sor daiteke. Erreforma aukera horien artean, 2012an erabaki zen azken lan erreforma (3/2012 legea, uztailaren 6koa).

Langileen Estatutuaren balizko erreforma hori egiteko abiapuntua oso kezkarria da ELArentzat, hiru arrazoi medio:

- Gobernuak beto ahalmena eman dio patronalari, erreforma egiteko baldintza gisa eragileen arteko adostasuna ezarri baitu. CEOEri emandako blokeo ahalmen hau oso larria da, kontutan izanik azken erreformek patronalari nahi zuen guztia eman diotela, akordio sozialen beharrik gabe; beraz, patronalak betoa ezartzea enpresen interesen alde zeharo lerratuta dagoen egitura legala iraunaraztea litzateke. Horregatik, ELAren iritziz Valerio ministroak esan duena iraingarria da: lan erreforman ukituak egingo direla, eta ez dela indargabetuko -oposizioan zeudenean agindu zuten moduan-, eta legea edozein kasutan “enpresarioen elkarteekin batera” aldatu behar dela.

- AENCaren laugarren saioak Pedro Sanchezen gobernuari aukera eman dio azaleko ukituen diskurtsoa balia dezan, izan ere, ezarri baitzen sakoneko aldaketa bakarra azpikontratazioaren eremuan egin behar dela (patronalaren beto ahalmenetik abiatuta). Beraz, estatuan ez da izango eztabaida publiko sakonagoa eragingo duen mugimendu sindikalik, eta gainera gobernu mugiarazteko mobilizazioak egiteko aukera ere baztertu egin dute.
- Langileen Estatutuko edozein aldaketa 2012ko azken erreformaren inguruan izango dela dirudi. ELAren ustez ezinbestekoa da Langileen Estatutuaren osotasuna eztabaidatzea, 2010ean eta 2011n egindako erreformak barne -hauen xedea lan baldintzak merkatzea izan zen-. Soldatak jaitsiarazteko estrategia horren estrategia berrak sektoreko lan-hitzarmen probintzialei lehentasuna kendu zitzaizkien, eta erraztu egin zen negoziazio kolektiboaren estatuzko prozesua. Horregatik, sektoreko hitzarmenaren lehentasuna aldeztu enpresek salbuespena ezartzeko duten aukera edota estatu mailako hitzarmen miserableen erreferentzialtasuna eztabaidatu gabe, soldatak jaisteko strategiari eustea litzateke.

Sanchez gobernuak bere gutxiengoa baliatzen du 2012ko Lan Erreforma goitik behera ez indargabetzeko aitzakia gisa, jakinik ez EAJk, ezta PdCATek ere, ez dutela onartuko erreforma sakonagorik. PSOEren gobernuak erabaki du ez dituela trantze horretan jarriko, izan ere, PPrekin funtsean bat baitator azken lan erreformaren mamiarekin. Baina etorkizuna interesgarria izan daiteke, Ciudadanos eta PP ziurrenik erreformaren aurka jarriko direlarik EAJren, Bilduren, nazionalista katalanen edo Unidos Podemosen botoak ezinbestekoak izango baitira edozein aldaketa aurrera aterako bada. ELAren iritziz egoera honek abagune bat irekitzen du negoziazio kolektiboaren estatuzkoari aurre egiteko.

Langileen Estatutuak kale egin zuen estatalizatzeko bide gisa

Negoiazio kolektiboa oro har homogeneousatzeko asmoa ez da oraingo arazoa; diktadura bukatu zenetik CCOO eta UGTk ez dute beste xederik izan. Merkatu batasunaren eta lan-harreman marko bakarraren beharra Jose Maria Zufiaurrek adierazi zuen (berau UGTko Batzorde Exekutiboko kide izan zen 1978 eta 1994 bitartean):

- *“Yo creo que cuantas menos competencias que tengan “carne”, que no sean de ejecución, se transfieran del tema de relaciones laborales, mejor. En un Estado de la Autonomía o un Estado Federal... hay cosas que no puede hacerse dejación de ellas y me parece una de las cuestiones fundamentales que vertebrar un Estado, que configura un Estado, y si no renunciamos al Estado, es sin duda, el tema de las relaciones laborales”.*
- *“Me parece que hay un gran tema respecto a la configuración del sindicalismo español. Hay un gran problema en Euskadi, donde pueden forzar convenios de nacionalidad, lo cual nos crearía un gran problema respecto al sindicalismo español”.*

Halaber, ELA tematu egin da negoziazio-eredu dezentralizatua lortzen, langileen beharrezan eta borondatearen arabera. 1979an UGTk eta GEOEk Langileen Estatutua onartu aurretik sinatu zuten Konfederazioarteko Oinarrizko Akordioa zela eta ELAko Nazio Batzordeak argitaratu zuen oharrak hala zioen:

- *“El Estatuto de los Trabajadores tiene que dar absoluta prioridad, en todo caso, a los niveles inferiores de negociación sobre los superiores, para garantizar así que la negociación sea de abajo-arriba”.*

Orduan, gaur bezalaxe, gure helburua zen langileentzako erreferentzia erreala izango ziren negoziazio eremuak bilatzea; beharrezkoa zen negoziazio eremu horretan langile-klasearen borondatea antolatzeak aukera izatea, negoziazio burokratikoetatik urrun.

Posizio honen baitan, eta Langileen Estatutuaren lehen zirriborroari aurre egiteko, 1979ko abenduaren 7an Greba Orokorra deitu genuen, CCOOekin batera. Deigarria da une hartan EAJK Greba Orokorrekin bat egin zuela, baita parte hartzerak deitu ere.

Lan-baldintzen estatizazioak bi helburu zituen orduan, eta gaur horretan dirau: nortasun espainiarra indartzea, estatu mailako negoziazio kolektibo markoaren bidez, eta adostasun sozialeko eredu sindikala sustatzea. UGT eta CEOEren arteko 1979ko Konfederazioarteko Oinarrizko Akordioak, zeina baliagarria den UGTren politika ulertzeko, oso argi marrazten zuen Langileen Estatututik espero zuten negoziazio kolektiboko egitura:

- *“CEOE y UGT manifiestan la necesidad (...) de reducir el número de unidades de contratación, ampliando el ámbito de las existentes, a **fin de reducir tensiones sociales innecesarias**. Asimismo, en tales convenios deberá procurarse agotar los temas objeto de negociación”.*

Langileen Estatutuko 83.2 artikulua da eskari haren emaitza. Areago, seguruenik artikulua ez zen Parlamentuan idatzi, eta zuzenean UGTk eta CEOEk eginikoa da:

- *“Mediante acuerdos interprofesionales o por convenios colectivos las organizaciones sindicales y asociaciones patronales más representativas, de carácter estatal o de comunidad autónoma, podrán establecer la estructura de la negociación colectiva, así como fijar las reglas que han de resolver los conflictos de concurrencia entre convenios de distinto ámbito y los principios de complementariedad de las diversas unidades de contratación, **fijándose siempre en este último supuesto las materias que no podrán ser objeto de negociación en ámbitos inferiores**”.*

Honelako idazkerarekin negoziazio kolektiboaren txorrota itxi nahi da goiko eremuetatik. Artikuluaren hasierak dioenez, badago Autonomia-Erkidego mailan negoziazio kolektiboa egituratzeko aukerarik, baina gero hori moztu egiten da, esaten denean gaineko eremuetatik finkatu ahal izango direla “beheragoko eremuetan negoziagai izango ez diren gaiak”.

Bazirudien dena prest zegoela estatizazioak aurrera egin zezan; hain zuzen, lan-baldintzak eta negoziazio kolektiboa homogeneizatzeko saio hark porrot egin zuen. Batetik, sindikalismoa orain baino askoz ere atomizatuago zegoen, eta sindikatu bakoitzak bere jardura negoziazio kolektiboaren bidez legitimatu nahi zuen; horregatik, negoziazioaren erreferentzia ez zen eguneroko aldarrikapenetatik urrun zeuden eremuetan kokatzen. Bestalde, lan gatazkak estatu mailan gaur baino askoz ere ugariagoak ziren, eta gatazka hauek mugatzen zuten negoziazioaren markoa, hots,

langileen benetako antolakuntza, hala lantokian nola probintzia mailako sektoreetan, eta legeek estatalizazioa aldeztu bazuten ere, negoziazio eremua beste bat izan zen.

Porrot honen adierazgarri da 1992an Estatuko negoziazioaren %75a oraindik enpresa mailan egiten zela, edota sektoreko lan-hitzarmen probintzialetan.

“Salbuespen autonomikoa”ren abagunea

Lege haiek sustatu zituztenak ez zeuden pozik lortutako emaitzarekin. UGT eta CEOE, ordurako batzutan CCOO ere lagun zutela, negoziazio kolektibo eredu berri bat hitzartzen saiatu ziren, egoera “arrazionalizatzeko” aldera.

Legediak artean ez zuen negoziazio kolektiboa bateratu, baina ezarri zuen ordezkariak sindikalaren sistemak CCOO eta UGTri estatu mailan ordezkariaren monopolioa ematen zien. Bi sindikatuek ordezkariaren monopolio hau betidanik areagotu nahi izan dute, negoziazio kolektibora eramanez.

Espainiar patronala, CCOO eta UGT hitzartzen hasi ziren estatu mailako lan-hitzarmen batzuk berariaz galarazten zuten beste eremuetako negoziazio kolektiboa. Lehen kasuak eraikuntza eta ostalaritzako hitzarmenak izan ziren.

Horregatik, 1994an Langileen Estatutuaren lehen erreforma mahai gainean jarri zenean, estatuko eragile sozialek zeukaten ordezkariaren monopolioa sendotzeko aukera ikusi zuten. Felipe Gonzalezen gobernuak aurkeztu zuen legegaiari negoziazio egitura estatala ezarri nahi zen, enpresetan lan-baldintzak malgutzeko aukerarekin batera.

Ordurako PSOEn gobernuak ez zeukan gehiengo absoluturik, eta Parlamentuko jokoan euskal alderdien botoak beharrezko zituen Langileen Estatutua aldatzeko. Horrenbestez, ELAk hainbat alderdi politikorekin, baina batik bat EAJrekin, landu zuen jatorriko testuaren aldaketa; helburua zen salbuespen klausula bat ezartzea estatuko hitzarmenetatik aparte lan-hitzarmenak negoziatu ahal izateko, baldin eta gehiengo sozialek horretarako indarra ematen bazuten.

Testuinguru hartan ELAk eta LABek Bilbon Lan Harremanen Esparruaren aldeko manifestazioa egin genuen, 1994ko otsailaren 19an. Deialdi hura mugarririk izan zen ELA eta LABen arteko harremanean, eta bion lankidetzak zeukan potentziala agerian utzi zuen.

Gainera, Lan Sailaren buru Paulino Luesma sozialista zen, eta une hartan honek irudi “euskaltzalea” eman nahi zuen. Lan Sailak Madrilgo minis-

terioarekin zuen hartueman hasierako legegaia aldatzeko behar bada onerako izan zen.

ELAren lanak, osatu berria zen gehiengo sindikalaren mobilizazioak eta EAJ zein EEren babesak fruitu eman zuen. EAJk Senatuan zuzenketa bat sartu zuen, zeina onartu egin baitzen, baita ondoren Kongresuan pasa ere; IUk baino ez zuen kontrako botoa eman (CCOO eta UGTren eraginpean zegoela). 84. artikuluko berriak honakoa zioen:

- *“A pesar de lo establecido en el artículo anterior, los sindicatos y las asociaciones empresariales que reúnan los requisitos de legitimación (...) podrán, en un ámbito determinado que sea superior al de empresa, negociar acuerdos o convenios que afecten a lo dispuesto en los de ámbito superior (...)”.*

Estatalizatzeko saio berriak

Aurrerago etorri ziren Negoziazio Kolektiboko Lanbidearteko Akordioetan CCOOK, UGTk eta CEOEk berriro aipatzen dute negoziazio kolektiboa arrazionalizatu beharra dagoela, hots, sektoreko lan-hitzarmen probintzialak deuseztatu behar direla. Nabarmen legez kanpoko akordio estatalak ere sinatu zituzten: beste eremuetan negoziazioa debekatzen zuten (hau izan zen arte grafikoen sektoreko kasua).

Dena dela, lege-markoa ez zen aldatu, 84. artikuluko paragrafo berria indargabetzeko gehiengo politikorik ez baitzen osatu.

Gehiengo politikoak berriz ere aldatu ziren 2001ean, PPK gehiengo absolutua lortu zuenean. Espainiar gobernua “autonomietako salbuespena” kentzeko proposamena egin zuen, horren ordez negoziazio kolektiboa ari egitura berri bat emanez:

- *“Mediante acuerdos interprofesionales suscritos por las organizaciones sindicales y asociaciones patronales más representativas de carácter estatal o convenios colectivos sectoriales de ámbito estatal se podrá establecer la estructura de la negociación colectiva (...)”.*

Pairatu izan ditugun lege-proposamen guztietan zentralizatzaileena izan da. Negoziazio egitura estatu mailan ezartzeko aukerarekin batera, egin zitekeen salbuespen bakarra enpresa mailakoa izango zen, ordainsari zein lanaldiari zegokionez. CCOOK eta UGTk enpresa mailako salbuespen hori ez zuten onartu, eta CEOEren iritziz enpresa mailan arautzeko gaiak urriegiak ziren; horregatik gobernua proiektuaren zati hori ez zuen aurrera eramanez.

PLURALTASUN SINDIKALAREN AURKAKO ESTATU-KOLPEA

Legediaren bilakaerak adierazten du egungo eskumen-marcoak ez duela gure autonomia kolektiboa babesten. Betidanik oso badaezpadako sistema honen menpeko izan gara, edota zenbait unetan euskal alderdiek estatuko legedia baldintzatzeko izan zezaketen aukeraren menpeko; besteak beste horregatik erabaki genuen 1997an Autonomia Estatutua eta Foruaren Hobekuntza hilda zeudela. HOBETUZen historiak berretsi zuen hau: Langileen prestakuntzarako fundazioaren jatorrian zegoen hiruko Akordioak benetan iraun zuen EAJk estatuko aurrekontuak baldintzatu ahal eta nahi izan zituen bitartean. Gero HOBETUZen finantzaketa bertan behera utzi zuten, kutxa bakarra hausten zuelako aitzakiaz; beraz, akordioarenak egin zuen.

Enpresa-negoiaziorako joera

2008an hasi zen krisi sistemikoak zeharo baldintzatu zuen lan-legedia. 2010ean Zapateroren gobernuak parlamentuan gehiengorik gabe eta Europaren izatezko interbentzio ekonomikoaren pean, ostera ere Langileen Estatutua aldatu zuen.

Lan merkatuaren erreformarako presazko neurriak jaso zituen 10/2010 Dekretuak norbanakoen eskubide ugari mugatu zituen (kaleratzeak, kontratu mota prekarioak, lan-baldintzen funtsezko aldaketa), eta bidenabar enpresako negoziazioari lehentasuna emateko lehen saioa izan zen, sektoreko lan-hitzarmenetan enpresek salbuespena aplikatzea erraztu baitzuen, eta aldeek hitzarmen horietan adostu izan zitzaizketen arauak alde batera utzi. Sektoreko hitzarmenetan izan ohi diren salbuespen aukerak oso mugatuak dira, galerak direnean; haatik, testu berriak salbuespena aplikatzeko aukera ematen du "perspektiba ekonomiko"en arabera; hala-ber, Batzorde Parekideetara jo ordez salbuespena egiteko aukera eskaintzen da enpresan akordioa iritsiz gero. Zehazki, 82.3 artikulua aldatzen da:

- *"Sin perjuicio de lo anterior, por acuerdo entre la empresa y los representantes de los trabajadores legitimados para negociar un convenio colectivo conforme a lo previsto en esta Ley, se podrá proceder, previo desarrollo de un periodo de consultas en los términos del artículo 41.4, a inaplicar el régimen salarial previsto en los convenios colectivos de ámbito superior a la empresa, cuando la situación y perspectivas económicas de ésta pudieran verse dañadas*

como consecuencia de tal aplicación, afectando a las posibilidades de mantenimiento del empleo en la misma”.

Gogoratu beharra dago lan erreforma hau zela eta euskal gehiengo sindikalak greba orokorra egin zuela 2010eko ekainaren 29an. Estatuan greba bera hiru hilabete beranduago egin zuten, erreforma Parlamentuan behin betiko onartu zenean: orduan aurkako botoa soilik ERCK, IUk, BNGk eta Nafarroa Baik eman zuten; PSOEn botoa aldekoa izan zen.

Beraz, Zapateroren gobernuak hasitako bideari jarraitu zion Rajoyk. Bi gobernuak euroaren uztarriari men egin zioten, baita Troiak inposatutako finantza-egonkortasuneko politikari ere. Lehiakortasuna hobetzeko mone-ta devaluatu ezinenez, erabaki zuten beharrezkoa zela soldatak jaitea, jendaurrean esan arren egitura produktiboa aldatu behar zela. Enpresen salbuespenaren alde egin zuten jakinik enpresek eragin zezaketen presioa medio lantokietan ez ziotela aurre egin beharrik izango erresistentzia sin-dikalari.

Lehenago, CCOO, UGTk, CEOEk eta CEPYMEk lehenengo Enplegu eta Negoziazio Kolektiborako Akordioa (AENC) sinatu zuen, hiru urterako eta berariazko helburua soldaten moderazioa zelarik. Akordio hartan aipa-tu zen helburua izan zen sektoreko negoziazio kolektiboa probintzia mailan ezabatzea:

- *“Nos encontramos con (...) un protagonismo excesivo de los convenios provinciales sectoriales, que se caracterizan por sus ámbitos funcionales muy fragmentados, su desarticulación y disparidad, y por la reiteración de ciertos contenidos, pero con diferencias sustanciales en las tablas salariales y jornadas pactadas”.*

Soldatak jaisteko, estatalizatu

2010ean sartutako aldatetek ez zituzten asetu enpresariak eta Troika. 2011ean negoziazio kolektiboaren egitura aldatu zen helburu nagusi bate-kin: hitzarmen sektorial probiniziala mugatu eta ito. Hitzaurreak berak argi utzi zuen erreformaren zioa:

- *“Por un lado, la 'atomización' de nuestra negociación colectiva, que supone que existen un muy elevado número de convenios colectivos, con ámbitos de aplicación reducidos y fragmentados, sin apenas relación entre ellos, que en ocasiones se superponen entre sí y en otros casos producen la paradoja de que el grado de cobertura de la negociación colectiva no alcanza a la totalidad de los trabajadores”.*
- *“Nuestro modelo de convenios colectivos **tiene dificultades para ajustar con prontitud las condiciones de trabajo**. Los ajustes no*

se produzcan incidiendo sobre los salarios o sobre la jornada de trabajo, sino a través de la adopción de medidas de flexibilidad externa, más traumáticas, como los despidos, produciendo un fuerte impacto en nuestro volumen de empleo y en un mercado de trabajo”.

- *“Los poderes públicos y los interlocutores sociales son, como se decía antes, conscientes de las disfunciones que presenta la negociación colectiva. Ya desde 1997, sucesivos acuerdos obligacionales firmados por la Confederación Española de Organizaciones Empresariales, la Confederación Española de la Pequeña y Mediana Empresa, Comisiones Obreras y la Unión General de Trabajadores, como el Acuerdo Interconfederal de Negociación Colectiva, los Acuerdos anuales de Negociación Colectiva firmados desde 2002 hasta 2008 y el Acuerdo para el Empleo y la Negociación Colectiva 2010, 2011 y 2012 han incluido criterios y orientaciones para afrontarlos y tratar de resolverlos.”* Bazuten erreformarako behar zuten babes sindikala.

Erreformaren abiapuntua gezurtia da: egitura produktiboa eztabaidatu ordez sinestrazi nahi da lehiakortasun eza soldaten ondorio dela. Soldatak doitzuz enplegua mantentzen dela ez da egia; estatuko egitura produktiboak eskulan asko behar du, izan ere, teknologian nahikoa inbertitu ez eta turismoaren moduko sektoreak dituelako oinarri. Sektoreotan enpleguaren doikuntza ez da gertatzen soldata-kostuak handiegiak direlako; kontua da produkzioa jaitsiz gero enpresek jendea kaleratzen dutela. Aitzitik, inbertsio teknologiko handiak dituzten enpresek soilik makineria hori martxan izateko behar duten langile kopurua daukate. Horregatik langabeziaren bilakaera ez da berdina izan Estatu guztian zehar; egitura produktiboak eragin du desberdintasuna.

Gobernua benetan beste zerbait ari zen eskatzen: enplegua eta soldatak doitzea enpresarioen irabazi marjinak bermatzeko, baita krisi garaian ere. Beraz, ez da harritzekoa kapital- eta lan-errentek 2010 eta 2018 bitartean izan duten bilakaera: 2010eko aberastasun mailara itzuli gara, eta areago, gainditu ere egin ditugu. Haatik, lan-errentek BPGan zuten pisua kapital-errenten mesedetan murriztu da (2,5 puntu EAEn eta 3,2, Nafarroan). Horixe izan zen, hain zuzen, erreformen xedea.

Gobernuaren abiapuntua zen negoziazio kolektiboaren egitura aldatzeko sindikatuen eta patronalaren babes zuela. Espainiar patronal eta sindikalismoaren arteko Konfederazioarteko Akordioek babes hori eman zioten, horren ondorioa soldaten jaitsiera izan bazen ere. Gogoratu behar

dugu bi lehenengo AENCen helburu nagusia soldaten moderazioa zela; hots, ontzat eman zuten soldata-kostu handiegiek lehiakortasunean eragina zutela, eta ez zen egitura produktiboa kritikatu. Bigarren AENCean soldaten bilakaera lotzen zen petrolio upelaren prezioak izan zitzakeen gorabeherekin; lehiatzeko gaitasuna hobetze aldera soldatak jaisteko politikari babes argia eman zitzaion, ondorioz.

Estatalizazioaren hasiera honako testuinguruan etorri zen:

- 83.2 artikulua berria:

“Las organizaciones sindicales y asociaciones empresariales más representativas, de carácter estatal o de Comunidad Autónoma, podrán establecer, mediante acuerdos interprofesionales, cláusulas sobre la estructura de la negociación colectiva, fijando, en su caso, las reglas que han de resolver los conflictos de concurrencia entre convenios de distinto ámbito.

Estas cláusulas podrán igualmente pactarse en convenios o acuerdos colectivos sectoriales, de ámbito estatal o autonómico, por aquellos sindicatos y asociaciones empresariales que cuenten con la legitimación necesaria, de conformidad con lo establecido en la presente Ley”.

- eta 84. artikulua berria:

“84.2 Salvo que un acuerdo o convenio colectivo de ámbito estatal o de Comunidad Autónoma negociado según el artículo 83.2 estableciera reglas distintas sobre estructura de la negociación colectiva o concurrencia entre convenios, la regulación de las condiciones establecidas en un convenio de empresa tendrá prioridad aplicativa respecto del convenio sectorial estatal, autonómico o de ámbito inferior en las siguientes materias (...).

84.3 Salvo pacto en contrario negociado según el artículo 83.2, los sindicatos y las asociaciones empresariales que reúnan los requisitos de legitimación de los artículos 87 y 88 de esta Ley podrán, en el ámbito de una Comunidad Autónoma, negociar acuerdos o convenios que afecten a lo dispuesto en los de ámbito estatal siempre que dicha decisión obtenga el respaldo de las mayorías exigidas para constituir la comisión negociadora en la correspondiente unidad de negociación.

84.4 En el supuesto previsto en el apartado anterior, y salvo que resultare de aplicación un régimen distinto establecido mediante acuerdo o convenio colectivo de ámbito estatal negociado según el artículo 83.2, se considerarán materias no negociables en el ámbi-

to de una Comunidad Autónoma el período de prueba, las modalidades de contratación, la clasificación profesional, la jornada máxima anual de trabajo, el régimen disciplinario, las normas mínimas en materia de prevención de riesgos laborales y la movilidad geográfica”.

Harrez gero hitzarmen probintziala ez da lehenasunezko negoziazio-eremua izango; ordurarte estatuko negoziazioaren %90 hortxe garatu zen. Hitzarmen probintzialesi erasateko beste urrats bat izan zen, autonomia, estatu edo enpresa mailan: tarteko eremu guztiak erreferentzia gisa desagertu egingo dira. Halaber, estatuko hitzarmenatarako gai jakin batzuk erreserbatzeak probintzia edo autonomia mailako negoziazioei ebatsi egingo dizkie lan-baldintzak negoziatzerakoan funtsezkoak diren arloak, esaterako urteko gehienezko lanaldia.

Lanbidearteko Akordioa, estatalizazioaren alternatiba

Geratzen den ihesbide bakarra da Lanbidearteko Akordioak negoziatzea, negoziazio kolektiboari bestelako egitura emateko. Aldaketa horren eta Rajoyk ezarri zuen Lan Erreformaren ondoren CONFEBASKek eskaini zuen bertan negoziatutako hitzarmen probintzialesi lehenasuna ematea, betiere soldatak jaisteko oztopo bilakatzen ez baziren; horregatik ELAri bake soziala galdegin zion, akordioa sinatuko bazuen. 2017an CONFEBASKen jarrera aldatu egin zen, eta negoziatu ahal izan genuen EAEko Negoziazio Kolektiboaren Egiturari buruzko Lanbidearteko Akordioa.

Akordio hau oso garrantzitsua da, EAE mailan adosten diren hitzarmenei lehenasuna ematen baitzaie estaturako erreserbatutako ez dauden gaietan. Akordio honen defentsa ELArentzat lehenasunezkoa da, izan ere, eskaintzen duen markoan hitzarmen probintzialak estatukoei gailenduko baitzaizkie. Eragileen indar-erlazioa, besterik ez, izango da akordioak iristeko aukera baldintzatuko duena. Horregatik, Federación Española de Asociaciones Dedicadas a la Restauración Social (FEADRS) patronalak akordio hura inpugnatu zuenean, ELAK kanpaina bat egin zuen eta grebak deitu zituen patronalaren kide diren enpresetan helegitea erretira zezaten eta Lanbidearteko Akordioak indarrean iraun zezan.

Nafarroan UGTk eta CCOOk uko egin diote ELAk eta LABek proposatu zieten antzeko akordio bati. Bi sindikatu horiek gehiengo diren eremuetan negoziazio burokratikoaren eredia ezartzen dute, zeinak soldaten jaitsierari atea irekitzen dion, lan-baldintza oso kaskarrak ezarriz.

Rajoyren aldaera basatia

2012an gaur egun dugun negoziazio kolektibo eredua biribildu zen, 3/2012 Errege-Dekretu Legearekin, otsailaren 10ekoa, lan merkatua erreformatzeko premiazko neurriak jasotzen zituena; dekretuaren berariazko helburua zen soldata maila jaitsiz doitzea; hots, monetaren betiko debaluazioaren orde (zeina euroaren markoan ezinezkoa den), soldaten debaluazioa bideratzea. Erabaki zen artikulua sail batek enpresa mailan sektoreko hitzarmenetan baino eduki apalagoak negoziatzeko eta lan-baldintzak aldatzeko aukera ematen zuen. Nolanahi ere, lan erreforma honek funtsezko aldaketa eragin zuen hiru eremutan:

- Lan-hitzarmenak ez aplikatzeko sistema, zeinak enpresei eskaintzen dien akordioak aldatzeko modua, sindikatuarekin akordiorik ez dagoenean ere. Hemen sartzen ari garen negoziazio klausulek hori eragozten dute; hau ezinbestekoa da ELAren iritziz.
- Legediak ezartzen du oinarrizko gaitan -soldata edota lanaldia-lehentasunez aplikatuko dela enpresa mailako negoziazioa, 84.2 artikulua bitartez: *“La regulación de las condiciones establecidas en un convenio de empresa tendrá prioridad aplicativa respecto del convenio sectorial estatal, autonómico o de ámbito inferior en las siguientes materias”*.
- Besterik hitzartu ezean, urtebeteko ultraaktibitatea ezartzen da.

Negoizazio egitura berri hau ari dira baliatzen lan-baldintzak prekariatzeko. Enpresa lehentasuneko eremu bada patronalak ez du oztoporik izango soldatak azkar jaisteko. Aldaketa larri honek, enpresa ugari erabakitako esternalizazioarekin batera, enpleguaren kalitateari sekulako astindua eman dio.

Estatalizazioa behin betirako ote da?

Probintzia mailako negoziazioari itzuri egiteko ireki diren aukerak baliatu egin dituzte espainiar patronalak, UGTk eta CCOOk estatu mailako hitzarmen asko sinatzeko; hauek inbaditu egin dituzte ordurarte sektoreko hitzarmen probintzietan negoziatu izan diren hainbat eduki. Hitzarmen probintzietatik bi atzerapauso jasan ditugu, enpresa-hitzarmenaren lehentasuna eta estatuko sektore-hitzarmenak medio.

Inbasio horren adibide bat 2018ko lehen seihilekoan ikus daiteke. Estatu mailako 16 sektore-hitzarmen sinatu dira; horietako 12tan estatueremurako negoziazio gai eskusiboak jasotzen dira, 84. artikuluan aipatu-

takoetatik haratago. Areago, bost kasutan baztertu egiten da estatu- eta enpresa-hitzarmena ez den beste edozein akordio izateko kaukera (segurtasun pribatua, prentsa, hiltegiak, azukre-industria eta hegazti-etxaldeak).

Interesgarria da sukaldaritzako kolektiboan sortu den egoerari erreparatzea. EAEn sektore hau ostalaritzako hitzarmen probintzialetan arautu izan da. 2016an CCOOK eta UGTK FEADRSekin, sukaldaritzako estatuko patronalarekin, sukaldaritzako kolektiboko lehen estatu-hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horretako lan-baldintzak miserableak dira: Bizkaiko hitzarmeneko soldatak baino %50 apalagoak (urtean 11.000 euro) eta urtean 70 ordu gehiago.

Estatuko hitzarmenak dioenez, beste negoziazio bat hasi nahi duenak Batzorde Parekideari baimena eskatu behar dio; batzorde hori CCOOK, UGTK eta FEADRSek osatzen dute. Gogoratu beharra dago ELAk eta LABek sektore honetako ordezkariaren %80tik gora dugula; beraz, negoziazioa mugatzea izugarriko eraso demokratikoa da.

Estatalizazioak oinarrizko eskubide sindikalak urratzen ditu

ELAk inpugnatu egin du Estatuko Sukaldaritzako Hitzarmena, eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiraino iristeko asmoa du edozein langilek nahi duen sindikatutan afiliatzeko duen eskubidea defenditzeko; bide batez, horrekin bermatu egin nahi da bere lan-baldintzak negoziatu ahal izango dituela sindikatu horrek behar besteko ordezkariak duenean.

ELAren iritziz estatuko eragileen inbasioa askatasun sindikalaren urraketa oso larria da, zeharo mugatzen baitie CCOO edo UGT ez den beste edozein sindikatutako afiliatuei beren lan-baldintzak negoziatzeko aukera. ELAren ustez, azken lan erreformek eta CCOO, UGT zein estatuko patronalak haiek aplikatzen ari diren moduak mugatu egiten dute ordezkariak duen jendearen lan-baldintzak negoziatzeko askatasuna, eta horrek urratu egiten du gure askatasun sindikala zein gai honi buruzko europako legegia, kontutan izanik ELAk EAE mailan %40tik gorako ordezkariak duela eta kasu askotan langileen ordezkariaren gehiengo absolutua ere badaukala; horregatik, bere askatasuna mugatzea erabaki antidemokratikoa da. Esan dugun legez, sukaldaritzako sektorean ELAk eta LABek ordezkariak sindikalaren %80tik gora dugu.

Horregatik erabaki genuen estatuko sukaldaritzako kolektiboko hitzarmena inpugnatzea, jakinagatik ere espainiar auzitegiek nekez egingo zutela gurekiko, sindikatu txiki batekiko, askatasun sindikalaren interpretazio

zabala; haatik, estatuko auzibidea agortzen ari gara EBko auzitegiraino iritsi ahal izateko.

ESTATALIZAZIOA AMAIARAZTEKO UNEA

Badirudi Langileen Estatutua aldatuz gero ukitu partzialak izango direla; IV. AENCK mugatu du dagoeneko eztabaidaren esparrua: gaiak ultraaktibitatea (patronalak negoziatzeko borondatea duen kasuetarako) eta azpikontratazioaren araubide desberdina izango dira, agian sektore-hitzarmenari lehentasuna emanez. Azken lan erreformek sortu dituzten gainerako arazoak (aplikazio eza, lan-baldintzen funtsezko aldaketak, langileen eskubi-deak...) ez dira aintzat hartzen. Noski, negozioazio kolektiboaren estatalizazioa ere ez da aipatuko, estatuko gizarte-eragileek sustatu baitute.

ELAren aburuz, beste lan erreforma bat eztabaidatzen hasiz gero ezarri izan diren puntu erregresiboetara heltzeko unea izan behar da. Gure helburua da azken hiru lan erreformak indargabetzea, baina, edonola ere, ez genuke ulertuko alderdi aurrerakoi edo abertzaleek 83. eta 84. artikulua aldatuko ez duen proposamenen alde egitea, autonomia kolektiboa gauzatu eta negozioazio-eremu bakoitzak gainontzeko eremuetan negoziatzeko aukera izan dadin, eremu gero eta hurbilagoetan hobetu ahal izango diren gutxieneoak ezarriz. Ezin dugu onartu negozioazio kolektiboa estatuhitzarmen batekin agortzea, langileei beren baldintzak hobetzeko aukera eragozten dien heinean.

Negoiazio eremuari buruzko eztabaida demokraziari dagokio, langileek hauteskunde sindikaletan eman duten ordezkartzarekin lotuta baitago. Ez dugu esango negoziazioa nola egituratu behar den gutxiengo garen eremuetan, baina langileen borondatea desberdina den lekuetan galdegiten dugu borondate hori lan-baldintzen negoziatziora ere iristea. Hego Euskal Herrian eta Galizan gehiengo sindikalak desberdinak dira; errespetua eta negoziatzeko ahalmena zor zaigu.

Halaber, auzi demokratikoa da langileen ikuspuntutik. Estatu mailako negoziazioa eremu zeharo urrunean garatzen da, non ez dagoen zuzenean negoziatu edo eragiteko gaitasunik. Sakontze demokratiko testuinguruan pentsaezina da negoziazioa langileen kontrolpetik at dauden eremuetara eramatea.

Hona hemen 2018ko ekainaren 30ean zegoen ordezkartza sindikalaren koadroa:

	EAE 2018/06		Nafarroa 2018/06		Hego EH 2018/06	
	Ordez.	%	Ordez.	%	Ordez.	%
ELA	7.124	40,83	1.383	22,86	8.507	36,2
LAB	3.318	19,01	966	15,96	4.284	18,23
CCOO	3.275	18,77	1.453	24,01	4.728	20,12
UGT	1.873	10,73	1.532	25,32	3.405	14,49
Besteak	1.860	10,66	717	11,85	2.577	10,97
GUZTIRA	17.450		6.051		23.501	

Autogobernu eta errespetu kontua da

Estatalizazioa homogeneizazio modu bat da. Jose Maria Zufiaurrek argi esan zuen negoziazio kolektiboa dela “estatu bat egituratzen duen oinarritzko zutabeetako bat”. ELAren ikuspuntutik nabarmena da autogobernuri ez dagoela Euskal Herriko langileek beren bizi-baldintzak negoziatzeko aukerarik ez badute.

Prekarietate edo duintasun kontua da

Estatuko sukaldaritzako kolektiboko hitzarmenean jasotako lan-baldintzak ez dira anekdota hutsa; hemen ez dugu halako baldintza kaskarrak dituen hitzarmenik sinatzen. Soilik edukiak baldintzatzeko aukerarik ez dagoen negoziazio eremuetan inposa daitezke halako edukiak. ELAren ustez langileen borondatea modurik errazenean bideratuko dituzten negoziazio eremuak bilatu behar dira: Batzutan lantokia edo enpresa izan daiteke, eta beste batzutan, berriz, sektorea; halako erreferentziak dira ahalduntze prozesuak posible egiten dituzten bakarrak. Miseria hedatzen duen lan merkatua ikusirik, negoziazioa garatu behar da langileek prekaritateari uko egin diezaioketen eremuan; negoziazioko beste edozein egiturak miseria legitimatu baino ez du egingo.

Negoiazio kolektiboa demokratizatzeko unea

ELAk negoziazio kolektiboko sistema berri bat nahi du, zeinak langileen borondatea errespetatu eta erabat patronalaren aldera lerratu den indar-erlazioa orekatuko duen. Eskatzen duguna oso erraza da: alde bakoitzean gehiago sozialak diren lekuan lan-baldintzak negoziatu ahal izatea, betiere ez badira okertzen, oro har, eremu zabalagoko hitzarmenetan jasotako baldintzak. Aurkituko ote dugu asmo hau aurrera ateratzeko aliantzarik?